

KAPELA KONIKOAK EUSKAL HERRIKO FOLKLOREAN

Jose Antonio Quijera

Cuadernos de Sección. Folklore 5. (1994) p. 195-224

ISSN: 0212-7547

Donostia: Eusko Ikaskuntza

Lan honetan Euskal Herriko jai eta dantza jakin batzuren ohizko jantzietak elementu bat aztertzen da: kono itxurako txanoak. Aurkezten diren adibideei esker; kokalekuaren araberrako bi eskualde geografiko bereizten dira, bi-biek ezaugarri propioak erakusten dituzte eta bata bestearen aurrian, buruz-buru, aurkitzen dira: Atlantiko aldea eta Mediterraneo aldea. Gainera, txano konikoaren inguruko alderdi sinbolikoaren azterketan sakontzen da. Hartarako, gisa horretako elementuak beste zenbait tokitako jantziengan aztertzen dira, datu etnografikoaren eta arkeologikoaren laguntzaz.

En este estudio se analiza un elemento de la indumentaria habitual en algunas fiestas y danzas concretas del País Vasco: los gorros cónicos. A la vista de la localización de los ejemplos presentados, se obtienen dos áreas geográficas diferentes, las cuales mantienen unas características específicas a la vez que se muestran mutuamente enfrentadas: el área atlántica y el área mediterránea. Además, se profundiza en el análisis de los aspectos simbólicos que giran en torno a los gorros cónicos. Para ello se recurre al estudio de este tipo de elementos de la indumentaria en otros lugares a la luz de los datos etnográficos y arqueológicos.

This study is the result of the analysis of an element of the traditional clothing which survives in some dances and celebrations of the Basque Country: the conical hats. By means of the situation of each example, they result two different geographical areas: the atlantic and the mediterranean areas. Their characteristics are in opposition. The symbolic aspect which move around the conical hats are analysed too. In this way, information of the conical hats in other areas is collected and analysed in relation to the ethnography and archaeology

AURKIBIDEA

Sarrera	201
Metodoa	202
Kapela konikoak Euskal Herrian eta eremu geografikoak	202
Eremu atlantiarra	203
Eremu mediterranearra	208
Kapela konikoak Penintsulako beste lekuetan	209
Kapela konikoak Penintsula kanpoan: ohar batzuk	211
Folklore eta etnografiaren datuak	211
Arkeologiaren datuak	213
Sinboloen bidetik	214
Ondorioak	215

SARRERA

Lan hau benetan zaharra bihurtu da nere karpetetan. Orain hamabi urte Euskal Herriko folkloreak munduan hasi nintzenean kapela konikoei buruz informapena jasotzea bururatu zitzaidan, eta hortik abiatuz lerro batzuk idatz nitzakela pentsatu nuen. Gauza gehienetan lehenengo urratsak luzatzea erreza izaten da, baina lan hau luzarorako izango zela konturatu nintzen laister. Horrexegatik, astiroago mugitzea egokiagoa izango zela iruditu zitzaidan azterketa zentzudun eta heldua lortu nahi banuen. Orduan, karpeta gorde eta ahal nuen informapen guztia jasotzen hasi nintzen inolako presarik gabe, batere kezkatu gabe, beste ikerketetan murgiltzen nintzen bitartean.

Era berean, folkloreak jo eta ke hasi nintzenean dena inguratu nahi nuela sentitzen nuen, eta hauxe lor nezakela pentsatu ere bai. Hau zen erokeria! Denbora igaroz, gaiak asko zentraldu behar nituela onhartu egin dut, praktikak bultzatuta, jakina. Kapela konikoen egoera Lur osoan behatu eta aztertu nahi nuen. Orain, ordea, Euskal Herrian eta haren inguruetan kokatzea jarrerarik zentzudunetzat jotzen dut. Baina horretarako hamabi urte igaro dira.

Une hartan gai hau zergatik aukeratu nuen esatea ez zait batere zaila. Euskal Herrian mantendu diren inauterietan zorabiagarriak bihurtzen dira bapatean dena ulertzeagatik zeharo kezkatuta sentitzen den gazte baten begietan, ene begietan hain zuzen. Inauteri hauetako pertsonaiengan apaindutako kapela horiek ugariak dira, eta neguko giroan nere aurrean ulertezina gertatzen zenaren erantzunaren bila abiatu nintzen. Hirugarren erokeria: dana ulertzea eta gauza guztien erantzuna lor al daiteke? Beti bezala, erantzuna denboraren eskutik dator.

Neretzat, euskal inauterietako pertsonai misterioitsu haien ezaugarri bikainetariko bat beren kapelak ziren, hain hornituak, hain erakargarriak. Horretaz zerbait gehiago jakin behar nuela sentitu nuen. Informapena Euskal Herriko herrietan eta liburuen bidez jasotzen ari nintzen bitartean, folklore mailan bizitzan gertatu zaidan elkarketa garrantzitsua suertatu zen: «Morris» taldearekin lagunduta Lucile Armstrong folklorista britaniarra Donostiara hurbildu zen, eta berarekin folkloreak solasean egun batzuetan aritu nintzen. Emakume haren jakinduria eta era berean apaltasunak, haren dinamismoa eta elkarki lasaitasunak erakarri ninduten zeharo. Ez dut inoiz ahastuko 1980.ko maiatzaren goiz hura Santelmo Museoa biok elkarrekin ordu batzuk hizketan bota genituelarik, dantzetan parte hartzen duten hainbat eta hainbat elementuen sinbolizmoaz hain zuzen ere. Goiz horretan eskuzapian Lucilek egin zizkidan marrazkiak altsor gisan gordetzen ditut, Inglaterrako dantzari haiek gure aurrean saiatzen ari ziren bitartean, sensibilitate osoaz beren kultur herrikoien mamia adieraztean.

Lucilen aurrean nere lanaren emaitzak eta ondorioak azaldu nituen. Adore handia eta batez ere lasaitasuna aolkatu ondoren, bere iritzia eskeini zidan kapela konikoei buruz. Erantzunaren giltza opari zidan, edo nik gutxienez honela jaso nituen emakume horren hitzak, hau da, oparia bezala. Arazoaren perspektiba osoaren jabea sentitu nintzen azken finean.

Harremana ez zen bukatu aste hartan, eta hilabete batzuk igaro ondoan bere eskutitz bat jaso nuen, adore eta indarrez beteta. Duela urte gutxi emakume jakintsu hau hil da. Baina haren bizi indarra eta jankiduria ez dira desagertu. Horiek ezin daitezke hil. Nere lan honen bidez Lucile Armstrongen kemenari omenaldi pertsonala eskeini nahi diot, besterik ez.

METODOA

Gaian gogoz sartu baino lehen premisa bat finkatzea beharrezkoa zait, hau da, kapela konikoak zeintzu diren hain zuzen ere.

Dantzetan, eta jaietan orokorki esanda, parte hartzen duten dantzari eta pertsonaia mozorratuek, inauterietan agertzen diren bezalakoak, burua estaltzen dute nolabait kasu geiheitenan. Buru gainean jartzeko mota askotako kapelak erabilgarriak izaten dira, baina eritzi errez batzuen bidez ez da zaila txano guzti hauen klasifikapen praktiko eta erabilgarria finkatzea. Kriteriook aldagai simple batzuk bereganatzen dituzte. Kapela bakoitza erabiltzen den jai motaren bidez klasifikatzea ez zait inoiz egokia iruditu multzo ezeldartuak lortu nahian, eredu batzu jai ezberdinetan agertzen bait dira. Bai, ordea, kapela bakoitzaren eratik abiatzen den klasifikapena. Horrela, eredurik sinpleena zapia buru gainean lotuta izango zen, bai xingola moduan kokatuta, bai ile osoa estaltzen. Urrengoa, txapela izan liteke, hutsik edota apainduta. Kapelak behatuta, laztozkoetatik jarrai gaitzke, hega handirekin, konikoak, zilindro itsurakoak hegari gabe edota hegadunak, eta abar. Eredu guztietan apaindurak kategoria murriztuagoak mugatzen ditu.

Lan honetan kapela konikoak aztertzen dira, eta horretarako bakarrik egitura konikoa duten kapelak onhartzeko dira, oinarrian hegari gabeak edo hegadunak izan daitezkeela kontutan hartuta. Orduan, kapela koniko multzoan (zentzu finkoak) ez dute lekuri kaska zilindrikoek edo hemizilindrikoek, esate baterako.

Beste puntura igarotzean, ikerketa honetan erabiltzen diren materialak, ahal den neurrian, Euskal Herriko eta inguruko informatzaileekin mantendutako elkarrizketen fruitua da, edota oraingoz dirauten jaiak behatzeak emandako datuak. Gure lurralde kanpoan mugitzeko material bibliografikoak erabili ditut, bai Penintsulako iparraldean, bai guregandik urrutiko koka-tzen diren kultur ezberdinek erabilitako kapela konikoen informapena jaso ahal izateko. Azken bide honek balore sinbolikoa ulertzeko giltza ugari ezkeini dit Euskal Herriko kanpoan.

Baliabide guzti hauen aurkezpena oso luzea izan daiteke informapen bolumen handia erabili bait dut. Laburketa sakona beharrezko bihurtzen da. Baita ere, Euskal Herriko jai askotako informea bibliografian aurki daitezke errez argitaratutako liburuetan. Nere ustez, ez luke zentzu handirik behin eta berriz gauzak errepikatzea berriak eta ezezagunak izango balira bezala, gaur egun gertatzen den moduan. Inauteri eta jai horiei buruzko informapen guztia aspalditik idatzita dagoelarik irakurleok modu errezean bila dezake,

Euskal Herriko haranetatik mugitzen garenean testuan zehar, adibide kopuru txikia azaltzen dut eredu gisan, kapela mota berdinak erabiltzen ziren beste herrien izenak bakarrik aipatzean. Informapen handiagoa adieraztea garrantzitsua izan daiteke jai mota zeharo ezberdinak agertzen badira lurralde edo haran berdinean, edota kapelaren apainduraren ezaugarri ezberdin eta bereziak badaude.

KAPELA KONIKOAK EUSKAL HERRIAN ETA EREMU GEOGRAFIKOAK

Euskal Herriko bi alde ezberdinetan kokatzen dira gaur egun kapela koniko guztiak. Lehenengoz, eremu atlantiarra, eta batez ere Nafarroako iparraldeko haranean eta Laburdi osoa, hau da, Euskal Herriko Pirineoko lurralde atlantiarra, oso aberatsa da. Gipuzkoan zen-

bait adibide aurki daiteke gaur egun, nahiz eta zertxobait ugariagoak izan joan den mende arte. Ez dut adibiderik aurkitu egungo Bizkaian. Kasu guztietan kapela konikoak inauterietan agertzen dira, dantzari eta mozzoratuen janzkeran parte hartzean hain zuzen. Txano hauen agerpena ez da Euskal Herria Atlantiarrean mugatzen. Penintsulako iparraldean ugariak dira Galiziaraino, Asturias eta Santanderreko mendi eta haranetan egoera berebean, hau da, inauterietan, eta baita ere leku guztietan kapelak taldeka agertzen dira beti.

Beste aldetik, Euskal Herriko hegoaldean berriz azaltzen zaizkigu txano hauek, Ebro ibai inguruan hain zuzen: Arabar Errioxako herri batzuetan erabiltzen dira, modu bakartian (ez kolektiboki) eta udako dantzetan. lehen bezala, lurraldea zabalik dago, Burgos eta Errioxa osotan azaltzen zaizkigulako han hemenka aipaturiko baldintza hauetaz. Baita ere, bi eremu hauen arteko ezberdintasun morfologiko batzuk sortzen dira kapela konikoen mailan.

Barnealdean, esandako bi lurralde hauen arteko haranetan, ez dut adibiderik aurkitu eta hutsune geografiko handia sortzen da aztergai den arazo honetan.

Idea hauek aurreratzea beharrezkoa da ondorengo zailkapena lurralde geografikoetan irakurleak uler dezan, eta ez dadin aurki puzzle baten aurrean, batez ere datuak oso laburki azaltzeko asmotan bait nago.

Eremu atlantiarra

LAPURDI

J.M. Guilcher egindako lan osatu eta interesgarriarekin kontu dezakegu Lapurdiko «zanpantzarrak» aztertzeko (1). Nahiz eta herrixka guztietan inauteriak antolatu, zenbait lekutan gorteiu konplexuagoak sortzen ziren horretarako mutil taldea elkartzen bazen. Mende honetan dantzari mozzoratuen multzo hauek Ustaritz, Milafranga, Ainhua eta Saran antolatu ohi ziren. Ustaritzen, esate baterako, hauzo bakoitzak bere taldea osatzen zuen. Parte hartzen duten pertsonai ezberdinen artean bi bikote interesatzen zaizkigu gure arazoarentzat: «ponpierak» eta «kotilun-gorriak».

«Ponpierak»: Bi mutil hauek jantzi arlekinatuak erabiltzen dituzte, jaka eta galtza belau azpiraino zintzarriz apainduta, eta margo ezberdinetako oihalezko xingolez eginda. jantzien behekaldeak hiruki erataz mutur askotan bukatzen dira, galtzerdi zuriak eskularruak bezala, eta ezpartina brodatuak. Honi, kapela konikoa lotu behar zaio. Egitura konikoa makil mehez eginda kolorezko paperez estaltzen da. Ez du hegaliak eta aurpegia estaltzeko maskara helduta darama, hau da, oihal gorria zulatuta begi eta ahoarentzat (2).

«Kotilun-gorriak»: Baita ere «marikak» deitzen dira. Bi mutil dira, emakumez jantzita eta zenbait apaindura geituz. Galtza zuri hornituak daramazkite eta gainean gona gorria janzen dute. Honekin, emakumearen mantala. Alkandora zuria eta gainean artilezko zamarra zuri lodia, lepo inguruan eta bizkar gainean zapi handia aurretik lotuta. Gerri inguruan kanpiaz berriko larruzko gerrikoa lotzen dute. Buru gainean kapela konikoa zerbait ezberdina aurreko eredutik. Garai gutxiko kartoizko zilindro gainean lau makil mehen zuri-gorriek egitura osatzen dute, baina kasu honetan ez da estaltzen. Bertzetik margo askotako oihal zinta luzeak errotzen dira. Kartoizko zilindro aurrean izpilia kokatzen da eta txanoak ez du hegarik. Lehen bezala, maskara gorria kapelan heltzen da eta aurpegi osoa estaltzen du. Girten luzetik helduta behi buztana (batzutan zaldizkoa) daramate jendea baztertzeko (3).

(1) Guilcher, J.M., «Dances et corteges traditionnels du Carnaval en Pays de Labourd», Musee Basque, 46 zb. (Baiona 1969).

(2) Guilcher, J.M., «Dances...», 16 or.

(3) Guilcher, J.M., «Dances...», 16-17 or.

NAFARROA

Mende honetan Nafarroako haran batzuetan kapela konikoak mantendu dira inauterietarako mozorroen janzkeran: Baztan, Ezkurra, Arakil, Basaburuak, Ulzama, Erro eta Aezkoa, esate baterako. Segidan, zenbait adibide ikusiko dugu.

Basaburuak

Leitzan «iotegek» edo «karnabalak» jaietan mozorratu ugari ikus ziteken, hauzoetatik herri barnera hurbiltzen zirela eta. Mozorratuak «atsoak» deitzen ziren. Mutil hauen janzkera zeharo anarkikoa izaten zen legez: ezkontzetako jantzi zaharrak, etxeko maindireak, gortinak, etab. Askotan, hauen gainetik ardi larrua jartzen zuten eta gerria inguruan zintzarri eta ezkilez beteriko gerrikoa lotuta mugitzean zarata lortzeko. Eskuan mazkuria makil bati helduta zera-maten haurrak jo eta bildurtzeko. Aurpegia beti oihal zulatuaren bidez estalita zihoan. Joan den mendea bukatu arte oraingoz ohiturazkoa zen «atso» talde bat bi metrotako «zango» luze gainetik agertzea.

Mozorratuek normalki «sonbrero» deitutako kapela konikoaren bidez burua estaltzen zuten. Txano hauek oso handiak izaten ziren: segalari laztozko kapela hartuta, makil batzuek egitura koniko erraldoia antolatzen zuten. Gero, honen ingurutik kolorezko girnaldak eta paper flekodunak ezartzen ziren. Bertizean eta kapelaren hegala handi inguruan hegazti luma luzeak zutik jartzen ziren, beste zenbait apaindura ingurutik, paperezko girnaldak eta katagorri larruak adibidez. Kapelak 75 zm.tara iristen ziren eta oso zabalak izaten ziren ere (4).

Bi Basaburuetako beste herrixketan kapela konikoak erabiltzen ziren inauterietan mozorratuen janzkeran: Areso, Arraras, Igoa eta Orokietan.

Ulzama harana

Ulzamako hiru herrixketara hurbiltzeko 1981.ean aukera izan nuen: Iraizoz (5), Alkoz (6) eta Autza (7). Hiruetan «ioteak» edo «iotek» egitura berbera mantentzen zuten, eta bi egunez osaturik zeuden. Jende mozorratua, mutilak beti, «txatxuak» deitzen ziren, eta haien janzkeran edozer gauza arraro egoki bihurtzen zen, batez ere maindireak, zakuak eta ardi larruak. Buru gainean «sonbrero» bat janzten zuten, kapela konikoa. Hauek egiteko Iruñian laztozko kapela hegala dunak erosi eta gainetik kolorezko konoa jartzen zuten. Gero, paper eta zintez apaintzen ziren. Garaia ez zen metro erditik igarotzen. Aurpegia margotu edo bestela «maskara» jartzen zuten, normalki zapi bat. Eskuan «pixuntzia» sokaz lotuta mugitzen zuten jendea jotzeko.

Arakil harana

Urdiainen kapela konikoak neguko beste jai batean ikus zitezken. Erregeen egunean hain zuzen. Neska-mutil talde bakoitzak haren erregea izendatzen zuten. Herriko enparantzan taldeka dantza egin behar zuten. Aukeratutako mutilen janzkeran kapela konikoak parte hartzen zuten (8).

Ezkurra harana

Oso ezagunak dira gaur egun Ituren eta Zubietako «iñauterik». Bi herrietan mozorratuek «ioaldunak» dute izena, beste batzuen artean. Haien janzkerak zertxobait ezberdinak dira.

(4) Informatzailea: Aizpurua jaun-andreak, Lasartenea etxean (1981-2-23).

(5) Informatzailea: Jose Lizaso (1981-3-28).

(6) Informatzailea: Juanarena eixeko nagusi jauna (1981-3-28).

(7) Informatzailea: Timoteo Tornaria, Urtinaina etxea (1981-3-28).

(8) Satrustegi, J.M., «Solsticio de invierno», 85 or. (Iruña 1974).

Ituren: galtza urdina eta franelazko alkandora, artilezko galtzerdi zuriak eta gomazko abarkak oinetan, gonazpiko zuria galtza gainetik, ardi larruzko gerriko Zabala, sorbalda gainean ardi larrua zabaldua, kolorezko zapia lepoan, «pulunpak» edo joare handiak gerrian eta «tunturroa» buru gainena, hau da, kapela konikoa. Eskuan «hisopua» edo zaldi buztana.

Zubieta: janzkera oso antzekoa da, baina ez dute ardi larrua sorbaldan jartzen, eta bai alkandora zuria eta kolorezko zapi handia gurutzatuta gorputzean. Beste elementuak berdinak dira.

Kapela konikoa egiteko kainaberazko egitura ingurutik kartoia jartzen da, eta azken honen gainean kolorezko oihala. Hegalaren gisan, farfaila zuria eta bertizean oilar lumak kokatzen dira. Hemendik ere zintak zintzilikatzen dira. Kapelaren garaia metro erdikoa da (9). Aurpegia estaltzeko zapia galdu egin da, baina lehen erabilita izaten zen beti (10). Gorteiu ezberdinak antolatzen dira bi herri hauetan eta Aurtiz hauzoan, eta bisitazko protokolo betetzen dira gaur egun.

Lehen, inauteriak debekatu aurretik, antzeko mozorratuak haran horretako herrixketan agertzen ziren: Ezkurra, Erasun eta Donamarian konkretuki. Hiru leku hauetan kapela konikoak erabiltzen ohi ziren.

Baztan harana

Errazuko «inautek» hiru egun irauten zuten. Arratsaldeetan «damak» deituriko mutil mozorratuak agertzen ziren. Haien janzkeran ondoko elementuak bereganatzen ziren: galtza zuria, alkandora bezelakoa, gerriko gorria, orlegi edo urdina, kolorezko zapia lepoan, farfailezko maskara zuria aurpegian eta buru gainean «xapela» deitzen den txano konikoa, hau da, kartoizko konoa kolorezko paperez eta zintaz hornituta. Esandako maskara kapelan helduta zihonan. Kapela mutil bakoitzari emaztegaiki egiten zion urtero.

«Dama» hauek hamabost mutil inguru ziren eta kalez kale «zanbonba» jotzen ibiltzen ziren: bonbo handiak haiek eginda (11).

Arizkungo «inauteak» igande, astelehen eta asterartean izaten dira, baina lehen bi edo hiru igande jaiak hasi aurretik «mozorratuak» agertzen ziren herriko kaleetan, era anarkikoaz jantzita eta aurpegia beti estalita. Inauteri egun guztietan azaltzen dira berriz mutil hauek.

Baita ere, egun hauetan «damuinausiek» eta «lagunek» parte hartzen dute, batez ere azken eguneko arratsaldean «sagar dantza» dantzatzen dutelarik kalez kale. Lau hauen janzkera honelakoa da: alkandora zuria galtza bezalakoa (lehen galtza urdina erabiltzen zen), ezpartina zuriak zinta gorritz, zapi gorria lepoan, gerriko gorria, eta buru gainean kapela konikoa. Azken hauek egiteko laztozko txano hegadun gainean kartoizko konoa ezarri eta ingurutik paperezko girnaldak apaintzen dira. Bertizetik zinta luze batzuk zintzilikatzen dira. Garaia 70 zm.takoa da (12).

Amaiurreko «inauteak» igandean hasten ziren asteartean bukatzeko. Egun hauetan «mozurruak» agertzen ziren kaleetan. Horretarako, maindireak, zakuak, oihal zaharrak eta beste edozerk balio zuen. Buru gainean «tutturroa» jantzen zuten. Pertsona bakoitzak berea egiten zuen kartoizko konoa kolorezko paper eta oihalez estalita. Ez zen faltatzen inoiz aurpegian zapia (13).

(9) Ituren eta Zubietan hartuta (1983-2-5).

(10) Urbeltz, J.A., «Dantzak», 204 or. (Bilbo 1978).

(11) Informatzailea: Mari Carmen Iturralde, Etxebelzea etxea (1981-9-25)

(12) Informatzailea: Elias Sanzberro Lauda, Estornea etxea (1981-2-24).

(13) Informatzailea: Benanzio Zaldain, Gazitona etxea (1981-9-24).

Lantze

Herri honetako inauteriak ezagunetarikoa dira, horrexegatik ez naiz asko luzatuko pertsonai guztiak eta jaiaren bilakaera azaltzean. Hemengo mozzoratuak «txatxoak» deitzen dira. Haien janzkeran edozer gauzak balio dezake, bururdia eta emakumezko jantziak batez ere, baina beti aurpegia estaltzen dute, eta buru gainean kapela koniko asko ikusten dira (lehen ez ziren kapela hauek hain ugariak): kartoizko konoa kolorezko paperez, girnaldaz eta zintaz apainduta.

Jaiaren parte hartzen duen «Miel-Otxin» erraldoiak beti kapela konikoa eraman ohi du, hau da, kartoizko kono handi bat girnaldaz estalita. Mozzoratuen kapelak ez dira metro erditik igarotzen, baina panpin erraldoiarenak 75 zm. inguru neurtzen ditu (14).

Esteribar eta Aezkoa haranak

Bi haran hauetako inauterietan mozzoratuek kapela konikoak erabiltzen zituzten leku batzuetan: Erro, Linzoain eta Eugin gutxienez.

Arian, Aezkoako haranean, kapela konikoen muga finkatzen da ekialderuntz Pirineoan, nik dudatan datuetaz. Hemengo inauterietan mozzoratuek kapela konikoa erabiltzen zuten, eta hauek prestatzeko kolorezko papera Ariben erosten zuten (15).

GIPUZKOA

Lurralde horretan kapela konikoen erabilkera dantza mota bati loturik agertzen zaigu, «sorgin-dantza», inauterietako dantza mota bakarrik Lasarteko Oriaren hauzoan mantenduta. Dirudenez, Bergarako langile taldeak ekarri zuen Oriaren dantza hau. Parte hartzen duten gizonek bi taldetan banatzen dira: erdia zuriz jantzita, eta beste erdia Gipuzkoako emakume baxeritar itxuraz. Lehengoek alkandora eta galtza zuriak erabiltzen dituzte, gerriko gorria, ezpartinak, eta buru gainean kapela koniko urdina, luzea eta muturrean artilezko bola batez apainduta, hegalki gabe (16).

«Sorgin-dantza» Bergaratik Oriaren ekarria izen zen, baina Gipuzkoako beste bi lekutan gutxienez dantzatzen ohi zen: Antzuola eta Zarautzen konkretuki. Bi leku hauetan dantzariak mende honetan txapela beltzak eta jantzi arruntagoak erabiltzen zituzten, baina lehenago janzkera erritualagoa zen, kapela konikoaz osatuta.

Gipuzkoa eta Bizkaiko beste inon ez dut txano mota honi buruz informapenik jaso, kutxa batean agertzen den irudia ezik. Hemen, jantzi luzea duten bi gizonek buru gainean kapela koniko hegadunak agertzen dira, ezpata jokuan aritzen diren bitartean (17). Esgrima ariketak Euskal Herriko erromerietako beste zenbait grabatu zaharretan beha daitezke ere.

Egungo Euskal Herriatik kanpoan berriz kapela mota hau agertuko zaigu Atlantiko aldean, Santanderren hain zuzen, eta ez dira desagertuko Galiziaraino.

SANTANDER

Probintzia horretako mendietan kokatzen diren herrixka batzuetan negu jaietako erritoetan ez zen arraroa kapela konikoak mozzoratuengan ikustea. Abenduko 31.an «La vijenera, vijenera, viejanera» deitzen zenbait herritako jaiaren neguko maskarada antolatzen zen: Iguña, Cieza,

(14) Lantzen hartuta (1979-2-26).

(15) Datu hauek Ane Albusi eta Jesus Larreak ezkeini zizkidaten Ariako Juana Maizterro Berruezo andrea elkarrizketatu zutenean (1981-10-7).

(16) Urbeltz, J.A., «Dantzak», 195 or.

(17) Kutxaren berria eta argazkia Juan Antonio Urbeltzen mezudea da.

Aniva harana, Torranzo, etab. Pertsonai ugarienak gorteiuetan «zamarra» edo «campaneros» deitzen ziren. Hauxe zen janzkera: alkandora gainean zamarra lodia joare handi batzuekin, polaina beltzak gainean, aurpegia kolorezko zapiak estalita eta buru gainean kolorezko zintaz apaindutako kapela konikoa. Eskuan gorozti makil marraztuta zeramaten ere (18).

ASTURIAS

Neguko jaietan maskaradak antolatzen ziren leku oparotan: «zamarronadas» edo «guirriadas». Gorteiuek konplexuak ziren. Pertsonai eta maskara ezberdinek parte hartzen zuten, baina guri interesatzen zaizkigunek «guirrios, zamarrones, sidros, barcanços» izenak jasaten zituzten herri ezberdinetan. Famatuena Pola de Lena eta Quirosekoak izan ziren iraganean.

«Guirrio» hauen janzkera ez zen berdina leku guztietan, baina apiatutako bi herrietan honelakoa zen: alkandora eta galtza zuriak, polaina beltz altuak, gerriko gorria eta beste bat bandolera moduan, gerrian era larruzko gerrikoa zintzarri eta eskilez beteta, eskuan makil luzea jauziak egiteko pertiga gisan, buru gainean kapela konikoa. Txano hauek ezberdinak ziren herri bakoitzean. Leku batzuetan kartoizko konoa zintaz eta paperez apainduta izaten zen. Bestetan, zertxobait konplexuagoa: oinarrizko kono gainetik bi ardi larru jartzen ziren. Hauek aurpegi, bular eta sorbalda estaltzen zituzten. Aurpegiarentzat hiru zulo egiten ziren aurreko larruan. Muturretik, azeri buztana zintzilik (19).

GALIZIA

Galiziako (centroido,) edo maskaradetan ez zen batere arraroa mota honetako kapelak ikustea herri askotan. Konkretuki, Pontevedrako «momada» edo «foliada», hau da, maskaradan «madamito» deituriko mutil taldea agertzen zen, beste pertsonaien artean. Hauek dantzari trebeenak izaten ziren. Jantzi on gainean urrezko kate eta eraztunak heltzen zituzten, gerriko batzuk burutzatuta, eta zapiak janzten zituzten. Buru gainean kartoizko kapela konikoa kolorezko paperez apainduta zeramaten (20).

Orenseko San Pedro de Moreira herrian mozorratuek emakumezko barne jantziak kanpotik erakusten zituzten jantzita, gerrian larruzko gerrikoa eskilez betetan eta buruan paperezko kapela konikoa (21).

Celanova ondokoa San Miguel de Berredo herrixkan mozorratuak horrela janzten ziren: alkandora zuria, galtzak, zapi batzuk, makil luzea soka batzuekin eskuan helduta, lepoihal zaharra aurpegian maskara moduan eta buruan paperezko konoa (22).

(18) Caro Baroja, J. «Mascaradas de invierno en España y otras partes», Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, XIX tomoa, 1 kuaderno (Madrid 1963). Idazle honek datu gehienak beste lanetik jasotzen ditu: G. Adriano García-Lomas, «Estudio del dialecto popular montañés, etimología, fonética y glosario de voces» (Donostia 1922). García Lomasek «zamarra»ei buruz hau idazten du: «También zamarracos. En las fiestas llamadas viejaneras se denominan así, a los individuos que ponen los campanos, por cuyo motivo también se llaman campaneros, los que sobre una especie de zamarra de celpudo o estera llevan atados por el asa una serie de cencerros o zumbas de gran tamaño, que jarrican o mueven de un lado para otro produciendo grandes ruidos: su aspecto es fantástico y original; llevan la cada tiznada de negro, un pañuelo chillón atado a la cabeza, polainas negras de paño (generalmente las reglamentarias del ejército), un cucurucho bordeado de cintas coloreadas y un parru de guinchos hecho de carrasca o de acebo con bujeles y limuestras. Su etimología viene de zamarrear o sacudir».

(19) Nuevo Zarracina, D.G., «Guirrios y zamarrones», Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, IV tomoa, 2. Kuaderno, 243 or. (Madrid 1948).

(20) Riso V. «Notas sobre las fiestas de carnaval en Galicia», Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, IV tomoa, 2. kuaderno, 163-196 or., eta 3. kuaderno, 339-364 or. (Madrid 1948).

(21) Riso, V., «Notas...», 2. kuaderno, 190 or.

(22) Riso, V., «Notas...», 2. kuaderno, 190 or.

Ulla harenako herrietan «maskaradas» deituriko inauterietako antzerkiak antolatzen ziren, elkarhizketa eta burrukaz osatuta. Mozorratu askok kapela koniko handiak jartzen zituzten, itxuraz Leitzan lehenago aipatu ditudan antzekoak (23).

Eremu mediterranearra

Euskal Herriko hegoaldeko eskualde konkretu batean kapela konikoak agertzen zaizkigu berriro, nahiz eta egoera ezberdinean, Arabako Errioxan hain zuzen. Leku guztietan «el gorro» deitzen dute.

Uriona (Villabuena)

Urionako dantza zikloa, «la danza», «San Torcuato» egunean ospatzen zen, maiatzaren 15.ean. Dantzariak «danzadores» izena jasaten zuten, zortzi mutil, eta haien nagusia «cachimorro» deitzen zen. Ez dut azalduko dantza osoaren bilakaera oso luzea izango bait zen. Bakarrik «cachimorro» honen janzkera aipatu behar da orain. Zenbait elementu aldatu egin dira janzkera berritzean urteetan zehar. Beste batzuk, kapela konikoa ere, gutxienez joan den mende bukaeratik mantendu egin dira aldaketarik gabe. Azken urteotan saten gorritzko jantzia zeraman, Lorez estanpatuta eta belau azpiraino. Lepoan oihal berdinezko hegal handia zeraman. Mahuka, anka eta lepotik beirezko bolatxo asko zintzilikatzen ziren. Eskuan kolorezko zintetaz amaitutako makiltxoak. Buru gainean 60 zm.tako kapela konikoa, hau da, kartoizko egitura ehun estanpatuaz hornituta, eta muturretik artilezko bolatxoak zintzilik, hegalik gabe.

Lehenago, aipatutako makiltxoak zaldi buztana zeraman, Errioxako leku gehienetan mantentzen diren bezelakoa (24).

Oian (Oyón)

Arabar Errioxako herri honetan «la danza» urtarilaren 22.an antolatzen da, «San Vicente» eta «San Anastasio» omenez. «Los danzadores» deitutako dantzarien aparte, «cachi» haien nagusia azaltzen da. Llehen bezala, azken honen janzkera behatu behar dugu bakarrik: zamarra eta galtza txonkartiletaraino xingola gorri eta orlegiz osatuta, zabal eta bertikalak. Eskuan daraman makiltxotik azeri larrua (urte batzutan untzia) heltzen da. Buru gainean kapela konikoa. Azken honen garaia 40 zm. ingurukoa da eta lau xingola gorri eta orlegiz egiten da. Ez du hegalik eta muturrean bi zinta zintzilikatzen dira (25).

Arabar Errioxako bi herri hauek ez dira bakarrik kapela konikoekin Ebro alboetan. Errioxako beste lekuetan agertzen dira berriz.

San Asensio

Ebro ondoko Goi Errioxako herri honetan dantza eta jai nagusia iraila hasieran antolatzen dira, Davaililloko Amabirginaren omenez. Hemen dantzarien zuzendariak «cachiberrio» du izena, eta bere janzkera Urionakoaren oso antzekoa da: zamarra eta galtza zabalak belau azpiraino, lorez estanpatuz oihalez eginda, galtzerdi zuriak eta ezpartin brodatuak. Eskuan, makiltxoak zaldi buztanaz. Buru gainean ehun berberaz eginda metro erdiko kapela konikoa, Oinarrarian firfai txikia agertzen da eta muturretik koloresko zintak heltzen dira (26).

(23) Bouza, F., «Teatro de carnaval en Galicia (Ulla)», Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, 406 or. (Madrid 1946).

(24) Informatzailea: Angel Basoco Chavarri eta Mari Carmen Basoco Martínez (1984-12-16).

(25) Informatzailea: Xabier Azkarate Zurbano (1985-4-27).

(26) Informatzailea: Ignacio eta Jesus Villaro, Santiago Cuesta (1984-12-16).

San Vicente de la Sonsierra

Uriona eta San Asensio ondoko herria da, Goi Errioxan eta Ebro ibai alboan kokatuta. Jaiak eta dantza maiatzaren 15ean, San Isidro, eta irailaren 8.an, «Los Remedios» Amabirgina ospatzen dira. Dantzarien nagusia «cachiberrio» deitzen da berriro. Bere janzkera hauxe da: alkandora zuria, galtza zuria belau azpiraino, ezpartin zuriak zinta gorritz hornituta, galtzerdi zuriak, gerriko gorria, Manilako mantoia sorbaldan eta eskuan bi makiltxo (Lehenago zaldi buztana). Buru gainean kapela konikoa lorez estanpatuta darama, kolorezko zintez apainduta (27).

Sorzano

Behe Iregua haraneko herrixka hau Ebrotik hurbil dago, baita ere Oion herritik. Jaiak eta dantza irailaren 8.an antolatzen dira, «Roble» Amabirginaren omenez. «Los danzadores», dantzariak, lehen aipatutako beste herri guztietan bezala zortzi mutil edo gizon dira, eta haien zuzendariak «cachi» du izena. Horrela jantzen da: xingola gorri eta hori bertikalez egindako zamarra eta galtza zabalak, zintzarriak mahuka, anka eta lepoan, ezpartin zuriak zinta gorritz, makiltxoak zaldi buztanaz eskuan, kapela konikoa buruan, baita ere ehun xingola berberaz eginda eta muturra aurreruntz zertxobait okertuta (28).

Baños de Rioja

Goi Errioxako herri hau ez dago Ebro ibai alboetan, Oja haranekoa bait da, Santo Domingo eta Naharruritik (Casalarreina) hurbil. Zortzi dantzariak «San Formerio» egunean dantza egiten dute, irailean. Nagusia «cachiburrio» deritza eta bere janzkera aldatu da azken urteotan, baina horrelakoa zen zenbait hamarkada lehenago: alkandora zuria, galtza orlegi eta hori xingoladuna belau azpiraino, margo ezberdinetako galtzerdi eta ezpartinak, apaindura batzuk ukondo eta bularrean, eskuan makila zaldi buztanaz eta buruan kapela konikoa, orlegi eta horia ere (29).

Hauexek dira Errioxa osoan aurkitu ditudan kapela konikoak. Hemendik hurbil, Burgosen hain zuzen, mantentzen dira ere toki batzuetan.

Burgos

Burgos hiriko dantzan hamabi mutilek hartzen dute parte. Dantza irakasleak hiru lagun-tzaile ditu. Lau pertsonai hauek «los tetines» deitzen dira eta haien janzkera arlekinatua da: zamarra eta galtza luze zabalak, eskuan hidi buztana eta buru gainean kapela konikoa, oihal berberaz eta kolorezko zintaz apainduta (30).

Villafranca Montes de Oca

Belorado eskualdeko herrian dantzarien nagusiak jantzi arlekinatua darama, xingola bertikalezko zamarra galtzak bezala, zaldi buztana eskuan eta sonbrero konikoa buruan. Azken hau kartoizko konoa da, paperezko lorez apainduta (31).

KAPELA KONIKOAK PENINTSULAKO BESTE LEKUETAN

Penintsulan kapela konikoak jai eta toki konketu batzuetan agertzen dira berriz, baina dentsitate handiko eskualdeak osatzen direnik ezin daiteke esan, kopurua oso morritzua dela-

(27) Informatzailea: Eduardo Martínez eta Antonio Mato (1985-9-27).

(28) Informatzailea: Nieves Pascual eta Roble Martínez (1985-5-27).

(29) Informatzailea: Pedro María Valgañón (1986-12-6).

(30) Informatzailea: Miguel Alonso (1986-4-21).

(31) Río, J. (del), «Danzas típicas burgalesas», 139-144 or. (Burgos 1975)

ko eta era berean geografikoki oso zakabanatuta kokatzen dira eta. Batzuk inauterietan azalzen dira, besteak udako jaietan.

Piornal (Caceres)

Herri honetako «jarramplas» deritzan pertsonai berezi eta bakartia neguko jaietan agertzen da, «San Sebastian» egunean, hau da, urtarrilaren 20.an. Bere janzkera honelakoa da: galtza eta alkandora zuriak, biak kolorezko zintaz hornituta, aurpegian maskara handia kapela konikoarekin elkartuta pieza batean. Maskara alboetatik bi adar izugarriak sortzen dira goruntz. Margo bitxiz koloreztatuta dago, monstruo itxura lortzean. Pertsonai hau kalez kale dabil egun osoan danborra joaz (32).

Peñalsordo (Badajoz)

Extremadurako herri honetan Gorpuzti egunean izen berdineko kofradiak haren jai antolatzen du. Gorteiu berezian arduradun batzuk parte hartzen dute. Kofradeen janzkerak ondoko gauzak gehitzen ditu: zamarra eta galtza oihal estanpatuaz belaur azpiraino eta zabalak, galtzerdi zuriak, oinetako beltzak, kolorezko zapi handia lepoan, eta kapela konikoa buruan paperezko lorez, zintaz eta girnaldaz apainduta (33). Kofradeak asto gainean azaltzen dira talde handian prozesiora joateko eta beste ekintzetan parte hartzeko.

Almonacid del Marquesado (Cuenca)

«San Blas» eta «Candelaria» egunetan, otsailaren hasieran, neguko jai antolatzen da. «Los diablos» deituriko gizon tande handia protagonista bihurtzen da. Jaiaren egitura naguko maskaradarena da zalantzarik gabe. Gizon hauek zamarra eta galtza zabalak janzen dituzte, ehun estanpatuaz eginda. Sorbaldan joare izugarri handiak lotzen dituzte eta buru gainean «mitra» antzeko kapela gorri handia «San Blas» egunean, eta beste kaska mota (Candelaria)n. Horrela jantzita kalez kale mogitzen dira taldeka zarata sortzen (34).

Baliteke kaska loredunak eredurik zaharrena izatea jai honetan, eta mitra nolabait beranduago sortutako elementua.

Valverde de los Arroyos (Guadalajara)

Urriko lehenengo igandean jai eta dantza antolatzen dira. Dantzariak zortzi gizon dira eta zuzendaria «zorra» deritza, Janzkerak elementu hauek bereganatzen ditu: galtza eta alkandora zuriak, galtzerdiak bezala, gorbata, mantoi handia gerrian lotuta gona luzea balitz bezala, koloresko zinta ugari sorbaldan, eta «canastilla» deritzan «mitra» antzeko kapela konikoa buruan. Mitra hau paperezko lorez eta zintaz oso apainduta dago. Dantzan koreografia ezberdinak egiten dituzte makilez (35).

Lehen esan dudan bezala, Penintsula barneko datuak kopuru murriztuan agertzen dira eta gainera oso zakabanatuta. Aipaturiko bi (Piornal eta Almonacid) neguko jai multzoan kokatzen dira, aro eta egiturarengatik, Beste biek (Peñalsordo eta Valverde) udako jaietan zer ikusi handia daukate. Ugarteak bezala agertzen dira, eskualde geografiko eta arlo tematikorik osatu gabe.

(32) Fernanz Chamón, A.L., «El jarramplas de Piornal y el taraballo de Navaconcejo», *Narria*, 23-24 zb 49055 or. (Madrid 1981).

(33) Gonzalez, C. eta Timón, M.^a P., «Fiestas del Corpus Christi en Badajoz», *Narria*, 25-26 zb., 47-51 or. (Madrid 1982).

(34) Gonzalez, C., «Notas sobre los diablos de Almonacid del Marquesado», *Narria*, 5 zb., 32-35 or. (Madrid 1977).

(35) Sanz, I., «El paloteo en la provincia de Guadalajara», *Narria*, 1 zb., 31-34 or. (Madrid 1976).

KAPELA KONIKOAK PENINTSULA KANPOAN: OHAR BATZUK

Kapela konikoen egungo zabalera kultura ezberdinetan ikertzea lan ikaragarri handia izango zen, interesgarria zalantzarik gabe. Ez da sartzan lerro hauetan horrelako ikerketarik. Bakarrik, zenbait adibide behatzean, bai egungo egoeraz, bai arkeologiaren bidez, Euskal Herrian egoera hobeto ulertzeko datu eta informapen gehiago lor dezakegu.

Folklore eta etnografiaren datuak

Neguko jaietako kapela konikoen lerroa Pirineoetatik Alpeetaraino mozten da, nahiz eta zenbait lekutan adibidea sortu. Dentsitate handian ez dira berriro agertzen ekialdeko eslabiarren lurraldeetaraino iritsi arte, eta handiagoan oraingoz hegoaldean, hau da, Eslobenia, Rumania, Kroazia, Serbia, Bulgaria, Albania, Mazedonia eta Trazia. Eskualde hauetako negu jaietan antolatzen diren maskaradetan (oso ugariak gainera), mozzoratuengan kapela koniko maskaradunak, joareak eta artzai janzkeraren elementuak (ardi larruak esate baterako) elkar-tu egiten dira konstanteki. Era berean, gure maskaradetako antzeko pertsonaiak azaltzen dira eskualde balkaniarretan: gizonak emakumez jantzita, hartza mozzorroak, jaun-andre zahar mozzorroak, etab. (36). Herri hauetan sortzen diren neguko gorteiu asko artzaieen jaiak dira batez ere, eta bizi modu honen elementu ugari azaltzen dira janzkeran. Penintsulako iparraldeko aipaturiko inauterietan gertatzen den munduan.

Europatik kanpoan gaur egun beste lekuetan kapela konikoak kopura handian beha daitezke. Mendebaldeko Afrikan bizi diren talde etniko askok honelako kapelak erabiltzen dituzte haien errietoetan. Kapela hauek maskaradunak izaten dira. Orduan, burua eta kapela arteko elkarkuntza nabaria da, bata eta bestea bat egiten direlarik. Esate baterako, Bolikostako Dan etniak mantentzen duen mozzoratuaren errietalean agertzen dira: «Guegblain» deituriko maskara zangodunak kapela konikoa darama, oinarri inguruan maskorrez apainduta (37).

Kapela koniko ugariak beste etniengan aurki daitezke Afrikako mendebaldean. Bambara taldearen mozzoratuaren errietalean honelakoak erabiltzen dira. Malinke (Mali), Mossi (Volta Garaia), Bobo (Mali-Volta Garaia), Baule (Bolikosta) eta Senufo herriaren artean kapela konikoak ikus daitezke errietoetan (38).

Penintsulako eremu atlantiarrean eta Europako balkaniarrean kapela konikoak taldeetan agertzen dira, askotan mozzoratuaren taldeak oso handiak izaten dira, eta neguko jaietara lotuta daude. Baina Afrikako eskualde haietan maskara mota hauek beti bakartiak dira, zera da, errietoetan beste mozzoratuak agertzearen, konoduna bat bakarra da. Beti ere, maskara hauek erligioaren elementuak dira: deidade edo arbasoen azalpenetan erabilgarriak dira.

Maskara kapela konikodunak Afrikako hegoaldean ikus daitezke berriro, Angolan adibidez, Chokwe etnien egurrez eginda, Hegoafrikako Xhosa taldearena laztoz egiten da, ordea

(36) Herri balkaniar horien neguko jaiak, inauteriak bereziki, eta mozzorroak «Le Folklore Macédonien» aldirkarian aztertzen dira, Institut de Folklore de Skopje. Ikerketa interesgarrienak 15-16 zenbakian aurki daitezke (Skopje 1975): Livin Marcu, «Quelques aspects des anciennes coutumes d'hiver dans la vallée de Moglena», 69 or.; Milan Risteski, «Coutumes de la veille de Noël dans la région de Mariovo», 241 or.; Maria Constantin, «Les costumes dans les corteges a masques chez les roumains et chez les peuples balkaniques», 335 or.; Rossita Anguelova-Georgiéva, «La culture théâtrale folklorique chez les slaves du sud a travers leurs coutumes et leurs jeux d'hiver en travestis et avec masques», 353 or.; Dusan Konstantinov, «Towards the study of masks in Winter Costumes in Macedonia», 378 or.

(37) Zemp, H., «Masques Dan», Bolikostan 1965tik 1967.rra egindako grabaketa, testu eta argazkiekin, (Radio France) (Paris 1967).

(38) Talde etniko horien maskara deskribapena J. Anquetilen «Afrique Noire» liburuan ikus daiteke, 1 zb. Baita ere maskara hauen erabilerak erligiosoa (Paris 1977).

(39). Hemen berriz maskara hauen balorea zeharo erlijiosoa da, jainko edo arbasoen papera bete nahi delako haien bidez.

Goi Egiptoko abenduaren 10.ean hiri bakoitzak hiru egunez gobernua etentzen da eta gobernatzaile berezia aukeratzen da egun hoietarako. Honek buru gainean kapela konikoa janzten du. Azken unean eriotz zigorra agintzen zaio itxurazki, eta bere janzkera erre egiten da (40).

Asiako txamanek batzuetan honelakokapelak erabiltzen zituzten. Asiako Kazakh-kirgientz txamanak, «baqqa», arkume edo azeri larruz estalitako kapela konikoa janzten du (41). Txamanen kapelak oso beharrezkoak izaten dira lan hau bilakatzeko Asia aldean, erligioaren espezialista hauen botere eta ahalmen asko hor gordetzen bait da. Kapelarik gabe ezin dutela inongo eragiketarik aurrera eraman Siberiako etnia askotan pentsatzen da (42).

Kanboiako erreinuan benetazko erregeak boterea itxurazko erregeari uzten zion. Azken honek egun hauetako erito guztietan kapela koniko zuria erakusten zuen (43).

Borneo ugarteko iparraldean bizi diren Dusun talde etnikoan apaiz emeek jantzi berezia janzten dute haien eritoetan: aurpegia zapi urdinez estalita, buru gainean kapela konikoa janzten dute. Honek oilar lumak eta mazkorrak daramazki apaindura gisan (44).

Australiako talde tribialek erabiltzen dituzten kapela konikoen zentzu erlijiosoa daukate ere. Zirkuntzidapen eritoetan oso arruntak izaten dira, gizonen elkartean onhartuak diren gazteek janzten dituztelarik buru gainean. Hemen, kapelak laztotz egiten dira eta muturrean hosto mordo handia ezartzen da (45).

Azteka herriaren artean iraileko jaietan hamabi-hamairu urtetako neska gaztea sakrifikatzen zuten, artoaren jainkoaren omenez, hau da, «Chicomecohuatl». Neska jainkoaren jazkeraz janzten zuten: buru gainean mitra itxurazko kapela konikoa eta lepo inguruan artaburuak, beste elementu batzuen artean (46). Azteka herriari buruz ere, Bernardino de Sahagunek idatzitako «Historia general de las cosas de Nueva España» delako liburuan (1579 urtean bukatuta) bi jainkok kapela konikoetat marraztuta agertzen dira, panteoi osoaren artean: «Quetzalcoatl», haizearen deidadea, eta «Xipotec», orfebreen jainkoa (47).

Hegoamerikako Patagonian, Sutako Lurrari hain zuzen, Seknam deituriko taldeak «kloketen» deritzan gazteen eritoetan mozorratuek parte hartzen zuten deidadeen papera betetzen. Sei jainko arteko bost ezberdinen aurkezpenetan kapela konikoak janzten ziren, aurpegia estaltzean ere konoaren bidez: «Kosmenk, Tanu, Ulen, Katernen eta Soorte» dira jainko horien izenak. Lehen bazala, zentzu erlijiosoa osoa mantentze da (48).

(39) Jabavn, R., «Los Xhosa, Pondo, Tembur y Swarzi», Pueblos de la Tierra, 2 zb. «Africa meridional», 20-27 or.; Kennedy, R., «Los Chokwe», 72-75 or. (Barcelona 1990).

(40) Frazer, J.G., «La rama dorada», 335 or. (Mexiko 1976).

(41) Eliade, M., «El chamanismo y las técnicas arcaicas del éxtasis», 414 or. (Mexiko 1976).

(42) Eliade, M., «El chamanismo...», 136 or.

(43) Frazer, J.G., «La rama dorada», 333 or.

(44) Eliade, M., «El chamanismo...», 278 or.

(45) Mcknight, D., «Los aborígenes del norte», Pueblos de la Tierra, 3 zb. «Australia y Melanesia», 2-9 or. (Barcelona 1990).

(46) Frazer, J.G., «La rama dorada», 664 or.

(47) Sahagún, B. (de), «Historia general de las cosas de Nueva España», 1579.an liburuaren idazketa bukatu zuen, baina 1793 arte ez zen argitaratu.

(48) Museo Chileno de Arte Precolombino, «Hombres del sur: Aonikenk, Selknam, Yamana y Kaweshkar» (Santiago 1987).

Arkeologiaren datuak

Jo dezagun orain arkeologia mailan, horien bitartez datu oparo jaso daitekelako. Aurrekohistoriatik aurrera deidade askoren buruak kapela konikoetaz apainduta izan dira, edo oraingoz garrantzitsuagoa iruditzen zaidana, burua goruntz konikoki luzatu da. Azken eredu honen adibide asko Mediterraneo inguruan kokatzen dira. Leridako Cogull haitzuloan Goi Paleolitoseko irudi interesgarria margotuta dago horman. Pertsonai arraren inguruan kapela konikodun emakume itxura duen taldea azaltzen da. Txanoek buruak estaltzen dituzte zeharo (49).

Siriako El Obeid herrian egindako induxketetan figuratxo asko agertu dira ilobi barruan. Haien buruak konikoki luzatuta daude (50). Warkako induxketetako figurek kapela konikoa daramate adibide anitzetan (51).

Irango Susan berriz aurkituriko deidadeen figuretan buruak konikoki luzatu dira (52).

Belutxistaneko Zhob haranean figurek txano konikoa erakusten dute buru gainean (53). Eredu guzti hauek 4.000 eta 2.000 urte K.a.an kokatzen dira eta aintzineko Mesopotamia inguruan agertu dira. Ilobietako laguntzaileak ziren, jainkoen irudikapenak hain zuzen.

Mesopotamiako panteoiko jainkoak «tiara» deituriko kapela koniko berezia zeramaten, eredu arkeologiko askotan ikusgarria dena. Hemengo erreinuetako erregeen buruetan «tiara» ez zen faltatzen ere, berek eta jainkoek bakarrik eraman zezaketelarik. Agintariak deidadeen papera betetzen zuten Lurrean. Tiarak itxura konikoa izan aparte, zezen adarrak zeramazkien askotan. Sumereko adibideak oso ugariak dira horretaz. Asiria aldeko erregeen «tiara» konikoaren adibideak oso ugariak dira ere. Errege pertsiarrek «Mitra» jantzen zuten, beste kapela koniko mota.

Egiptoko faraonen «mitra zuriak» zeharko ezagunak dira. Berrito ere, jainkoek eta jainkoen semeek (faroenek) horrelako tokado konikoak jantzi zitzaizketen, botere eta jakinduriaren ikus moduan.

Hititarren artea zenbait jainko kapela konikoaz irudikatzen zen: Teshub, ekaitzetako jainkoak beti bere txano konikoa erakusten zuen, 1.500 urte K.a.ko figuratxoek azaltzen duten moduan.

Kanaan aldean bai erregeak, bai El jainkoa, kapela konikoen jabeak ziren. Erregeen txanoak Egiptoko mitraren itxura mantentzen zuen, jainkoarenak adarrezko mitrarena, ordea.

Baal feniziar (1.500 K.a.) eta baal senitarrek (2.000 K.a.) mitra egipziar antzeko kapela erakusten dute. Azken datu hauek Mediterraneoeko ekialdeko kostalde inguruan kokatzen dira, eta beti kapela konikoa errege eta jainkoen janzkeraren elementu bezalako bat azaltzen da.

Indiar kultura eta erligioan jainko batzuen irudikapenetan kapela konikoak agertzen dira ere: Visnu eta Krishnaren kasuetan bereziki. Buda guztien irudiek burhezurreko muinoa aurkusten dute, «usnisa» deituta, askotan itxura konikoaz, budistentzat, hor kokatzen bait da bu-den jakinduria. Mitra jainkoak beti bere txano berezia eramanten du, kono tankerazkoa, bazuetan mutur okertuaz eta bestetan zutituta. Elizan, mitra deituriko kapela konikoak ezin du edozeinek jantzi, arduradun garaienek bakarrik baizik. Xgn. mendean Elizako arduradunek erabiltzen zituzten bai mitra eta bai tiara kono itxurazkoak ziren. Bilakaeraren bidez gaurko

(49) James, E.O., «La religión del hombre prehistórico», 198-200 or. (Madrid 1973)

(50) James, E.O., «La religión...», 206-207 or.

(51) James, E.O., «La religión...», 207 or.

(52) James, E.O., «La religión...», 208 or.

(53) James, E.O., «La religión...», 210 or.

erara iritsi dira. Sorginen irudiek kono beltza erakusten dute eredu klasikoetan. Horrelako adibide gehiago azalgarriak dira, baina zentzu erligiosoaren ideia jasotzeko soberan dira aipatutakoak. Hemendik aurrera zenbait ondorio lortzea beharrezkoa da, konstante batzuk mantentzen bait dira adibide guztietan.

SINBOLOEN BIDETIK

Orain arte aipaturiko datu guztien bidez kapela konikoen sinboloen munduan murgil gaitzeko, bide horretatik konstante batzuk azaltzen direlako. Konstante horiek arazoa ulertzeko giltzak aurkeztu behar dizkugute. Sinboloen bilakaeran biltzen diren elementuak hiru zutabetan pilatzen dira:

- a) Kepala konikoak eta deidadeen jakinduria
- b) Androginiaren nabardurak
- c) Zentzu erligiosoa eremu geografiko guztietan

Atal bakoitzetik ideia osagarri bat sortzen da.

Onhargarria den lehenengo aburua hau da: kapela konikoak elementu erligiosoak dira, datu arkeologiko eta etnografikoek baieztatzen duten bezala. Orduan, errituetan erabilgarriak dira. Balore erligiosoaren natura jakin daiteke ere: kapela konikoak jainkoek darmazkite buruan, edota gizonek jainkoaren papera betetzeko mozorratzen direlarik zeremonietan, hau da, Lur gainean jainkoaren aurkezle bihurtzen direnean, edo gizona goi mailako arduradun erligiosoa denean. Pertsonai guzti hauengan normaltasunetik ezberdintasuna jakinduria mailan kokatzen da batez ere, beste arazoak baztertu gabe, jakina, haien ezaguera jende arruntarena baino handiagoa da. Herriari ezeztatuta dagoen informapenaren jabeak dira maila metafisikoan. Adibidez, eta irakurleok ideia hau hobeto jaso dezan, buden arazoa ikus dezagun. Lehen idatzi dudan moduan, buda guztiak beti muino bereziaz irudikatzen dira, askotan kono itxurazkoa. Budistentzat, buden jakinduri berezia, hau da, jende normalarenaren gainean kokatzen den jakinduria, hor bertan gordetzen da, muino horretan. Faraonen arazoa antzeko adibidea da. Faraonek bere ardurapenezko zerbait erabaki behar zutenean mitra zuria erakusten zuten, zeremonia erligioso guztietan ere. Horrela jakinduri transzendentalaren jabe bihurtzen ziren (54). Gizasemearen jakinduriaren errezeptakulua burua da. Jakinduri handiagoak bolumen handiagoa eskatzen du, burua luzatzean adibidez. Jainko eta mundu sakratuaren espezialistek haien ezaguera berezia kapela konikoetan gordetezen dute. Askotan, arkeologia eta etnografiaren datuen bidez adierazgarria, kapela konikoa eta burua bat izaten dira, elkartuta eta ezberdintasunik gabe. Burua, jakinduriaren kutxa, handituta agertzen da jende arruntarena baino handiagoa, ahalmen handiagoa. Maskara eta kapela elkarturik egoteak zentzu berbera adirazten du. Burua eta kapela bat bihurtzen dira.

Bigarren ideia edo eritzia kontrako elementuekin zer ikusia badauka, eta hemendik konzeptu erligioso primario batera iritsi gaitzke. Batez ere Europan erabiltzen diren kapela konikoetan ez dira faltatzen normalki emakumezko elementuak. Zalantzarik gabe, mozorratuen jantzietan agertzen dira, baina baita ere haien kapela konikoen apaindurak bezala: firfailak, emakumeek ilean jantzen dituzten kolorezko zintak, emakumezko jantzien oihalak, etab. Jantzerak osoaren beste antzeko elementuak gehituta, maila fisikoan sexuen kontrakotasuna adierazten da, hemendik abiatuz, androginiaren konzeptura iristen gara bide zuzenean. Ez dugu

(54) Lucile Armstrong bi adibide hauen bidez kapela konikoen balore sinbolokoak ulertzeko giltza eman zidan.

sartu behar orain androginiaren azterketan maila globalean, soberan egaina bait dago tan hori. Orokorki esanda, androginiaren bidez osotasuna bilatzen dela onhar daiteke, batez ere ja-kinduri eta ezagueraren osotasuna, absolutoa (55). Lehenago bilakatu dudan ondorioaren alde jolazten du azken ideia honek. Errioxako adibide batzuetan ez dira agertzen hain garbi emakumezko elementuak kapelan bertan (batzuetan bai). Orduan, androginia beste bidetik bilatzen da: kontrako kolorezko oihal xingolak elkartzean.

Hirugarrenak, eremu geografikoekin zer ikusi dauka. Gutxi gora behera, kontinente guztietan datu ugari daude. Gaur egun, kapela konikoak lurralde konkretuetan finkatzen dira. Dentsitate handiko toki batzuk azaldu ditut orain arte. Baina arkeologiaren informapena aberatsagoa da oraingoz. Aintzineko kultura gehienek kapela konikoa erabili zuten aipatutako zentzu erligiosoan, eta horrela sortzen den mapa osatuago eta zabalagoa da. Zentzu erligioso konstante moduan mantendu egiten da leku guztietan. Aipaturiko kultura guztietan kapela hauek nabardura sakratua daukate mamian eta gune sortzaile gisan.

ONDORIOAK

Orain arte azaldu denetik abiatzean Euskal Herrira berriz iritsi behar dugu, gure kasuan erabilgarriak diren zenbait ondorio lorturik. Leku guztietan kapela konikoei buruz konstante batzuk eta elkarpuntuak baldin badaude, sortutako eskema Euskal Herrira eraman beharko genuke eta aplikatu ahal den neurrian.

Hemendik aurrera Euskal Herriko egoerarentzat ondorio batzuk jasotzeko prest gaudela dirudi.

a) Eremu geografikoak:

Euskal Herria, kapela konikoetaz nahiz kultura herrikoia beste ataletaz, orain ere bi eremu, bi mundu ezberdinen partaidea da. Alde batetik eremu atlantiarran dentsitate handiko eremua dago, Penintsulako iparraldetik Galiziaraino luzatzen dena konstanteak mantentzen:

- Kapela konikoak taldeka agertzen dira.
- Neguko jaietan erabilgarriak dira.
- Aurpegia estaltzeko maskara helduta eramaten dute.
- Androginia konzeptua emakumezko elementuen eskutik lortzen da gizonengan.

Beste eremua mediterranearra da, ez aurrekoa hain zabala, baina adibide ugari beregatzten du, berriz ere konstante batzuk mantentzean:

- Kapela konikok bakarki agertzen dira.
- Udako jai eta dantzei lotuta daude.
- Ez dira agertzen maskarak.
- Androginio konzeptua margoen kontraktasunaren bidez lortzen da.

Zenbait adierazpen egitea beharrezkoa da jarraitu baino lehen. Nere ustez, Gipuzkoa eta Bizkaian kapela konikoak ez mantentzeak zer ikusia badauka lurralde hauetan dantza eta jaietarako txapelaren erabilkerarekiko. Bi lurralde hauetan kapela mota gehienak dantza eta

(55) Ikus: Eliade, M., «Mefistófeles y el andrógino» (Madrid 1969). Oso interesgarriak dira 120 orriko lerro hauek: «Los esfuerzos que el hombre lleva a cabo para superar los contrarios le fuerzan a salir de su situación inmediata y personal y a elevarse a una perspectiva transubjetiva; en otros términos: a llegar al conocimiento metafísico. En su experiencia inmediata, el hombre está constituido por parejas de contrarios».

inauterietan desagertu egin dira txapelaren alde. Arazo hau joan den mendean sortuko zen txapelaren sartzapenarengatik.


Nafarroan (eta Errioxan oraingoz gehiago) txapela ez zen sartu hain gogorki folklorean, eta beste kapela mota ezberdinak, aberatsagoak sinboloen aldetik, mantendu egin dira zorionez. Beste aldetik, Oingo dantza neguan egiten da, baina Errioxako beste dantzak bezelakoa da, hau da, udako jaiaren egituraz hornituta. Azkenez, Burgosen lau kapela konikoak azaltzen dira hiriburuko dantzan, baina hau mende honetako aldaketa da.

Bi eremu arteko egoerak nolabait kontrakoak direla ohargarria da gonbaraketaren bidez.


b) Balore sinbolikoak


Nere eritziz, Euskal Herriko kapela konikoen balore sinbolikoa eta beste lekuetan onhargarriak diren baloreak ez dira ezberdinak, elementu orokor eta konstanteak bait daude (zentzu erligiosoa esate baterako, edota eraman dezakeenaren izakera). Orduan, lehen esan dudana berriz erakar liteke hona: kapela konikoak deidadeen elementuak dira (edo gizonenak horien papera betetzen dutenean). Kapela konikoen bidez lortu nahi dena hau da: jakinduraren errezeptakuluaren handikuntza propiziatu eta adieraztea. Mozorratuak ez dira maila gizatiarrean mugitzen, horrexegatik balore metafisikoa duten elementuak erabiltzen dituzte, kapela konikoak. Era berean, kontrakotasuna bilatzen da bide ezberdinetaz bere ondorioak jaso ahal izateko. Kapela Konikoek azaltzen dutena ez da berri eta berezia erligioaren zientzian. Dantzari eta mozorratuen janzkeran gehitzen diren beste elementu askok balore berberak bereganatzen dituzte, bai Euskal Herrian, bai kanpoan ere.

KAPELA KONIKOAK PENINTSULAKO IPARRALDEAN



-- DENTSÍATE HANDIKO LURRALDEAK

 EREMU ATLANTIARRA

 EREMU MEDITERRANEARRA



«Kotilun-gorria»ren maskara eta kapela konikoa.
Baionako Euskal Museoa (klitxea J.A. Ormazabal).



Leitzako «atxoak» (85-2-5).




Iturengo «ioaldun, ttuntturro edo zanpantzarrak» (83-2-1).



Arizkungo «damuinausiek» sagar-dantzan (81-3-3-).



Lantzeko «Miel-Otxin» erraldoia eta «txatxoa»,
biak kapela konikodunak (79-2-25).



Kutzako ezpatariak kapela konikoekin (Klitxea J.A. Urbeltz).



Asturiaseko «guirrio»
(D.G. Nuevo Zarrazina idazketatik hartuta).



Galiziako «madamito» edo «gigante»
(V. Risoren idazketatik hartuta).



Urionako «cachimorro»ren kapela konikoa
(84-12-16).



Oiongo «cachi» (1980.ko jai egitarautik hartuta).



San Asensio. Aurrean, «cachiberrio» dantzan (86-9-7).



Sorzanoko «cachi» dantzariekin «El ahorcao» deituriko koreografian (86-5-18).



Papuako maskara konikoa. Basoetako deidadearen antzezleak eraman behar du errito inizatikoetan. Londoneko Britainiar Museoa.



«Teshub», hitarren
ekaitzetako jainkoa (1.500
k.a.). Ankarako Museoa.



«Baal» semitikoa (2.000 k.a.). Zu-
ritzeko Rietberg Museoa.



Luristaneko bi deidade
(1.000. a.), ezkerrekoa
emea eta eskubikoa arra.